



SOZIOLINGUISTIKA  
KLUSTERRA

# Euskaini ARRASATE 2008

*herriko euskarazko eskaintzaren neurketa*

## EMAITZEN TXOSTENA

2010eko azaroan

## Aurkibidea

Aurkibidea .....	1
Sarrera .....	2
<i>Euskaini</i> ren ibilbidea .....	3
<i>Euskaini</i> Arrasaten .....	3
Jasotako datuak .....	5
Indize orokorrak .....	6
Administrazioa .....	8
Ekonomia .....	12
Merkataritza .....	15
Gizartea .....	17
Komunikabideak .....	21
Hezkuntza .....	24
Osasuna .....	28
Ezagutza – erabilera - eskaintza .....	31
Neurketaren ondorio nagusiak .....	34
Euskaini neurketaren METODOLOGIA .....	37
Hizkuntza eskaintzaren neurketa .....	37
Datuen antolaketa .....	38
Komunikazio motak .....	38
Erreferentzia interesgarriak .....	40
Eranskinak .....	41

## Sarrera

**Euskaini**, euskarazko eskaintzaren adierazlea da. **Euskainiren** bitartez, konplexua den errealitate bat (herri bateko hizkuntza eskaintza) modu sinplean eta indize zehatzen bidez adierazi dezakegu. Eskaintza publikoa neurtzen du, alegia, gizartearen sektore ezberdinetan (administrazioan, ekonomian, hedabideetan, e.a.) topatzen dugun hizkuntza-eskaintza zenbatekoa den. Argazki moduko bat eskaintzen digu, zehatza eta konparagarria. Hizkuntza plangintzarako tresna baliagarria da, bereziki udalerrri mailan alderatzeko, sektoreka aztertzeke eta bilakaerak ikusteko aukera ematen baitu.

## *Euskaini*ren ibilbidea


**Euskaini** neurketarako metodologia, Catalunyan Consorci-ko teknikarien garaturiko **Ofercat** metodologiaren egokitzapen bat da. 2002an aurkeztu zituen SEI elkarte desagertuak Azpeitian **Euskaini** lehen neurketa pilotuaren emaitzak. Orduetik hona, beste hainbat herritan ere egin dira euskarazko eskaintzaren neurketak, SEI elkartearen eskutik, lehenengo, eta Soziolinguistika Klusterrak zuzenduta ondoren, beraz 2004. urtean sortu zenetik aurrera. Laudion (2002an), Arrasaten eta Hernanin (2003an), Durangon (2004an), Oarsoaldeko hiru herritan (Pasaian, Lezon, eta Oiartzunen) (2005), Elgoibarren (2009), Hernanin (2009) eta Azpeitian (2009).

Txosten honetan aurkezten dira Arrasaten 2008an jasotako datuen indizeak, 2003ko lehen neurketako indizeekin alderaketak eginaz.

## *Euskaini* Arrasaten

Arrasaten datu jasoketa 2008ko martxoan hasi eta urrira bitartean egin zen. Neurketaren antolaketa eta jarraipena Soziolinguistika Klusterretik eta Arrasateko Udaleko Euskara Zerbitzutik egin zen, eta datu-jasoketan Nerea Zubia teknikaria aritu zen gehienbat.

Guztira 800dik gora erakundetako datuak jaso ziren, txostenean zehar atalka antolatuta ageri direnak.



## Jasotako datuak

Gorago esan bezala, Arrasateko herritarrek jasotzen duten hizkuntza-  
eskaintza neurtu ahal izateko 832 erakunderen datuak jaso dira.  
Erakunde hauetan guztietan, herritarrekin harremana izateko dituzten  
bide ezberdinetako hizkuntz ezaugarriak jaso dira, horretarako  
komunikazio motak bereizita. Guztira 6.962 datu jaso dira aipatu  
erakundeetan.

Administrazioa, Gizartea, Komunikabideak, Hezkuntza eta Osasuna  
sektoreen kasuan, herrian sektore horietan dauden erakunde **guztien**  
datuak jaso dira. Ekonomia sektorean, berriz, eskaintza osoa sakon  
aztertzeke zailtasunen aurrean, herriko errealitatearen adierazgarri den  
**lagin bat** aztertu da. Lagin hau orekatua izan da; denetariko  
erakundeak hartu dira kontuan bai jarduerari dagokionez eta baita  
langile kopuruari dagokionez ere


Ondoko koadroan zehazten da sektore eta azpisektore bakoitzean  
behatutako erakundeen kopurua, bai 2008ko neurketan eta baita  
2003ko neurketan ere. Kopuru horiek kontuan hartzea komeni da  
sektore eta azpisektore bakoitzaren indizeak aztertzean, herrian duten  
presentzia asko aldatzen baita batzuetatik besteetara.

### ARRASATE 2008 eta 2003

	2003	2008	2003	2008
<b>Administrazioa</b>			23	24
Udal administrazioa/mankomunitatea	17	19		
Forala eta autonomikoa	3	2		
Estatukoa	2	2		
Justizia administrazioa	1	1		
<b>Ekonomia</b>			492	498
Enpresak	84	72		
Merkataritza/zerbitzuak	324	369		
Publizitatea	84	57		
<b>Gizartea</b>			121	132
Kirola	17	22		
Kultura, aisia, erlijioa, gastronomikoak	94	97		
Alderdi politiko, sindikatu, mugimendu	10	13		
<b>Hedabideak</b>			60	57
Bertakoak	3	4		
Kanpokoak	57	53		
<b>Hezkuntza</b>			37	33
Arutua	19	18		
Ez arautua	18	15		
<b>Osasungintza</b>			77	88
Publikoa (O)	2	2		
Pribatua (O)	75	86		
<b>GUZTIRA</b>			810	832

## Indize orokorrak

### Sektoreka



2008an **herriko Euskaini indize orokorra 0,58koa da** Arrasaten. Bost urte lehenago egindako neurketatik indize orokorrak 0,04ko igoera izan du (0,54 zen 2003an).


Indize orokorrak adierazten duen igoera apal hori ez da modu desorekatuan eman, **Euskainik** aztertzen dituen 6 sektoretatik 5etan eman baitira igoerak: Administrazioan indizea berdin mantendu da, eta beste bost sektoreetan igoerak izan ditu.

Aldaketak txikiak izan dira oro har, eta beraz herritarrari egiten zaion euskarazko eskaintzak 2003ko maila bertsuan jarraitzen du herrian, goranzko joera apal batekin.

Sektoreka berezita, eskaintza-indizeen banaketa ez da nabarmen aldatu: Administrazioan, Gizartean eta Hezkuntzan dira altuenak euskarazko eskaintzak (0,7tik gora hiru kasuetan), eta baxuenak, berriz Ekonomian eta bereziki, Komunikabideetan. Osasuna sektoreko indize orokorra, herriko batez bestekoaren inguruan dago.

## Komunikazio motaka

Herriko eskaintza komunikazio motaka - Arrasate 2003/2008



Sektore guztietako datu guztiak batera hartuta, Komunikazio motaka bereizita ditugu ondoko grafikoan. Herriko erakunde, komertzio elkarte eta gainerako Errotulazio identifikatzailean<sup>1</sup> igoera esanguratsu bat eman da herri mailan (2003ko 0,61tik 2008ko 0,70ra).

Ahozko komunikazioei dagokienean ere, bost urte hauetako bilakaera goranzkoa da euskarazko eskaintzari dagokionez: Ahoz identifikatzeko hizkuntzan, hau da, herritarrari zuzentzen zaio “lehen hitzean”, herriko indizea 0,55etik 0,61era igo da. Ahoz egokitzeko hizkuntzan ere herriko indizeak igoera bat izan du, txikiagoa kasu horretan (0,03ko igoera).

Bi datu horiek adierazten digute, alde batetik, herritarrari komertzio, elkarte eta bestelakoetan lehen hitza euskaraz egiteko joera handixeagoa dela bost urteren buruan, eta bestetik, denbora horretan zertxobait gora egin duela ere herritarrari euskaraz “erantzuteko” gai direnen kopuruak.

Igoera ez da, dena den, aztertutako komunikazio mota guztietan gertatu. Errotulazio informatzaileari eta Idatzizko komunikazioari dagokionean, euskarazko eskaintza bost urte lehenagoko maila berean dago, hurrenez hurren, 0,64 eta 0,46.


<sup>1</sup> Errotulazio identifikatzailea (“ERR. IDENT”): erakundea herritarren aurrean identifikatzen duen errotulazioa da, erakundeen “errotulu korporatiboa” beste hitz batzuetan.



## Administrazioa

### Azpi-sektoreka

Administrazio sektoreko euskarazko eskaintza - Arrasate 2003/2008




Administrazioa da gaur egun Arrasateko herritarrek euskarazko eskaintzarik altuena jasotzen duten sektorea: 0,79ko indizea du. Sektoreko indize orokorrak ez du batere aldaketarik izan 2003tik 2008ra.

Administrazioa lau azpi-sektoretan banatzen da, baina guztiek ez dute presentzia eta garrantzia berdina herritarren eguneroko joan-etorrian: Udala/mankomunitatea alde batetik eta Forala/autonomikoa dira garrantzitsuenak, eta bi kasuetan euskarazko indizea 0,9 ingurukoa da. Bost urteko bilakaeran, bi administrazio horietan indizeak zertxobait gora egin du (0,04 eta 0,08, hurrenez hurren).

Bereizketa oso nabarmen bat dago administrazioen euskarazko eskaintzan: Udalekoa eta autonomikoa 0,9 inguruan eta Estatukoa eta Justizia administrazioarena, berriz, 0,3ko indizetik behera. Azken bi administrazio horien presentzia, dena den, askoz txikiagoa da herrian aurreko biena baino (guztira 3 erakunde).

Bost urteko bilakaeran aldaketa nabarmena eman da Justizia administrazioaren indizean: 0,72tik 0,12ra jaitsi da. Dena den, azpi-sektore horretan erakunde bakarra egonik, aldaketa horren pisua txikia da sektoreko indize orokorrean.

## Komunikazio motaka





Alboko grafikoan ikus dezakegu Administrazioa sektoreko 0,79 indize orokorra nola banatzen den komunikazio motaka.

2003. urtean Ahoz identifikatzeko eta egokitze hizkuntzan ziren euskarazko indizek altuenak (0,84 eta 0,85). Bi indize horiek jaitziera txiki bat izan dute **Euskaini** lehen neurketatik bigarrenera, baina maila bertsuan mantentzen dira 2008an.

Errotulazio identifikatzaileari dagokionez, indizea 0,78tik 0,88ra igo da, eta 2008ko neurketan hori da bost komunikazio moten artean indizek altuena duena.

Errotulazio informatzailean eta herritarrekin Komunikazio idatzietarako erabiltzen diren ohiko dokumentuetan administrazioko eskaintza-indizeak ez du aldaketa nabarmenik izan bost urteotan.



## Komunikazio motaka


Ondoko bi grafikoetan ikus dezakegu Udal administrazioan eta administrazio Autonomikoan nolakoa izan den indizeen bilakaera bost komunikazio motetan.

Administrazioaren indize orokorrak aztertzean (ikus aurreko orria) ikusi dugu jaitsiera txiki bat zegoela ahozko indizeetan. Jaitsiera hori Justizia administrazioko indizearen aldaketatik dator, izan ere, alboko bi grafikoek erakusten dute Udal administrazioan eta Autonomikoan ahozko indizeek ez dutela jaitsierarik izan.


Udal administrazioko eskaintzan euskarak oso presentzia nabarmena du indizeek erakusten dutenez. 2003an hala zen, eta hala izaten jarraitzen du bost urte geroago, indizeetan goranzko joeratzeko batekin.

Administrazio foral eta autonomikoaren presentzia eta garrantzia txikiagoa da herrian, baina ikusten dugu administrazio horretan ere eskaintza indizeak bost urte lehenagoko parametroetan mugitzen direla, bost komunikazio motetatik bitan igoerak izanik (errotulazio informatzailea eta ahoz egokitzeko hizkuntza).

Estatukoa - eskaintza komunikazio motaka - Arrasate 2003/2008



Justizia - eskaintza komunikazio motaka - Arrasate 2003/2008



## Komunikazio motaka

Estatuko administrazioan eta Justiziakoan herrian dauden erakundeak mugatuak dira: bi erakunde estatukoan eta bat justiziakoan. Hori horrela, azpisektore hauetako indizeek oso errealitate puntuala edo mugatua deskribatzen digute, aurreko bi azpisektoreek ez bezala.


Indizeei dagokionez, alde nabarmena dago euskarazko eskaintzan Udal eta Foru administrazioetik Estatuko administrazioa: errotulazioetan indizea ez da 0,5era iristen, komunikazio idatzietan 0,25aren inguruan dago eta herritarrarekiko “lehen hitza” (grafikoetan, *ahoz ident. hiz.*) gaztelaniaz da. 2003tik 2008ra igoera aipagarri bat eman da errotulazioen euskarazko indizeetan.

Justizia administrazioaren indizea zeharo aldatu da 2003tik 2008ra, 0,72tik 0,12ra jaitsi da. Tartean erakunde bakarra egonik, badirudi jendeari arreta egiten dion pertsonaren aldaketaren ondorio izan dela hori: bai ahoz identifikatzeko, eta bai egokitzeko indizeak 1 izatetik 0 izatera pasatu dira. Horrek eragin nabarmena izan du azpisektore honen indizean, baina baita neurri txikian Administrazio sektoreko indize orokorretan ere.

## Ekonomia

### Azpi-sektoreka

Gorago “Jasotako datuak” atalean ikus daitekeenez, **Euskaini** azterketaren daturik gehien Ekonomia sektorean jasotzen da, bereziki merkataritza azpi-sektorean (guztira, ia 500 erakunderen datuak ekonomian, horietatik 350 bat merkataritzakoak).




Ekonomia sektorearen indizeak gora egin du 2003tik 2008ra: 0,44tik 0,48ra. Enpresetan eskaintza indizea 0,08 igo da (0,42tik 0,50era) eta merkataritzan, aldiz 0,03 (0,47tik 0,50era). Hau da, herritarra dendetara, zerbitzuetara, enpresetara joaten denean jasotzen duen errealitatean, jasotzen duen eskaintzan, euskarak bost urte lehenago baino presentzia handixeagoa du. 2008an enpresetako eta merkataritzako eskaintza indizeak berdindu egin dira eta 0,50eko indize orokorra dugu bi kasuetan.

Herritarrek etxean jasotzen duten publizitateari dagokionez, berriz, aldaketa txikia izan da, eta beheranzkoa. Arrasatearrek etxeko postontzian jasotzen duten publizitatea gaztelaniaz zegoen nagusiki 2003an (0,26 indizea), eta hala jarraitzen du 2008an (0,24).

## Komunikazio motaka

**Ekonomiako eskaintza komunikazio motaka - Arrasate 2003/2008**




Ondoko grafikoan komunikazio motaka ikus dezakegu zertan eman den Ekonomia arloko 0,44tik 0,48rako igoera.

Igoera ez da eman komunikazio mota guztietan: Errotulazio informatzaileetan eta Idatzizko komunikazioan, ekonomiako indizeek zertxobait behera egin dute.


Igoerarik nabarmenena Errotulazio identifikatzailean eman da: 0,37ko indizetik (2003) 0,53ra igo da (2008). Igoera esanguratsua da eta adierazten du ekonomiako enpresa, denda eta gainerakoetan izenak dituzten errotulu nagusietan euskaren presentziak igoera aipagarria izan duela bost urteotan.

Igoera garrantzitsua gertatu da ere ekonomia arloan Ahoz identifikatzeko hizkuntzan: 0,42tik 0,53ra igo da. Kontuan hartu behar da, gainera, sektorean “euskaraz dakitenen” edo “euskarara egokitzen” direnen neurria ez dela aldatu (*Ahoz egok. hiz: 0,57*). Beraz, herritarrei lehen hitza euskaraz egiteko *joeran* igoera bat eman da herriko ekonomia arloan.

Enpresetako eskaintza komunikazio motaka - Arrasate 2003/2008



Merkataritzako eskaintza komunikazio motaka - Arrasate 2003/2008



## Komunikazio motaka

Ekonomia sektorean deskribatu ditugun indizeak eta horien joerak enpresa arloa eta merkataritza berezita ikus ditzakegu hemen.

Ekonomian deskribatutako bi igoerak ematen dira bai Enpresetan eta bai Merkataritzan.

Enpresetan Errotulazio identifikatzailearen igoera nabarmenagoa izan da, eta 2003an ia bikoiztu egin da 2008ko eskaintza indizea: 0,25etik 0,40ra igaro da. Merkataritzan igoera ez da hain nabarmena izan, baina bai aipagarria: 0,41etik 0,57ra.


Ahoz identifikatzeko hizkuntza ere igoera bi azpisektoreetan eman da, neurri bertsuan. Enpresen kasuan, igoera txiki bat eman da ere Ahoz egokitzeko hizkuntza indizean (0,59tik 0,63ra); ez hala merkataritzan.

Bi azpisektoreen ezberdintasun nagusia Idatzizko Komunikazioa indizearen bilakaeran dugu: enpresetan gora egin du (0,20tik 0,30era), eta merkataritzan behera (0,43tik 0,31era).

Errotulazio informatzailearen aldetik ere joera ezberdina da bi azpisektoreetan, baina indize aldaketa oso txikiekin.

## Merkataritza

### Azpi-sektoreka



Merkataritzako datuak hiru azpi-sektoretan banatzen dira: Komertzioak, Zerbitzuak eta Gainazal handiak.


Merkataritzako indize orokorrak izan duen igoeraxoaren atzean (0,47tik 0,50ra) gehienbat Zerbitzuetako eta Komertzioetako indizeek bost urte hauetan izan duten igoera dago: hurrenez hurren 0,1 (0,41etik 0,51era) eta 0,03 (0,51tik 0,54ra) igo dira. Gainazal handietan, aldiz, bi neurketen indizea maila berean dago.

Zerbitzuen azpi-sektoreko euskarazko eskaintzaren igoera nabarmenagoa izan da Komertzioena baino. Hurrengo orrialdeko grafikoetan ikus daitekeenez, Komertzioen eskaintzak, aspektu batzuetan gora egin du, eta beste batzuetan behera. Zerbitzuetan, aldiz, igoera orokortuagoa izan da errotulaziozko, idatzizko eta ahozko elementuen aldetik.




## Komunikazio motaka


Komertzioetako eskaintza komunikazio motaka - Arrasate 2003/2008



Zerbitzuetako eskaintza komunikazio motaka - Arrasate 2003/2008



Gainazaleetako eskaintza komunikazio motaka - Arrasate 2003/2008



Komertzioen indizeak iguera aipagarria izan du bi komunikazio motatan: Errotulazio identifikatzailean (0,51 → 0,65) eta Ahoz identifikatzeko hizkuntzan (0,40 → 0,51). Jaitsiera nabarmena, aldiz, Idatzizko komunikazioetan: 0,60ko indizetik 0,45era. Jaitsiera izan du, halaber, Ahoz egokitzeko hizkuntzan.

Zerbitzuetan igoyerarik nabarmenena Ahoz identifikatzeko hizkuntzan izan da: 0,33tik 0,53era. Ahozko bi datuak kontuan izanik, iguera horrek jokaera aldaketa nabarmen bat adierazten du herritarrari “lehen hitza” euskaraz egiteari dagokionean.

Gainazal handien indizeetan iguerak eta jaitsierak ditugu bost urteotako bilakaeran.

## Gizartea


### Azpi-sektoreka

Gizarteko euskarazko eskaintza indize orokorrak 0,05eko igoera izan du 2003tik 2008ra: 0,66tik 0,71ra.


Gizartea sektoreko hiru azpi-sektoreen artean herrian presentziarik edo garrantzirik gehien duena Kultura, aisialdi eta gastronomi elkarteena da (100 bat erakunde biltzen ditu). Azpi-sektore honen indizea 0,72 da 2008an, eta maila berean mantendu da aurreko neurketatik.

Kirol elkarteen azpi-sektorearen indize orokorrak ere ez du ia aldaketarik izan bi neurketen artean eta hau ere 0,70aren ingurukoa da.

Alderdi politiko, sindikatu eta gizarte mugimenduen azpi-sektoreko indizearen kasuan, aldaketa nabarmena izan da bi neurketen artean: 0,55etik 0,72ra igo da indizea bost urtean. Igoera horren atzean bi motatako aldaketak daude: batetik, azpi-sektorean 2008an neurtu diren erakunde batzuk ez zeuden 2003an, eta berri horien errealitatea euskaldunagoa da. Eta bestetik, lehenik aztertutako erakundeen baitan ere aldaketak gertatu dira (errotulazio edo dokumentu gehiago euskaraz, ordezkari euskaldunagoak...).



## Komunikazio motaka



Gizartea sektoreko indizeak komunikazio motaka berezita, ikusten dugu gehienetan gertatu dela 2003tik 2008ra igoeratxo bat.


Errotulazio identifikatzailean indizea 0,88 izateak erakusten digu Arrasateko gizarte arloan erabat nagusi dela erakundek beren burua euskaraz identifikatzeko joera. Errotulazio informatzailean indizea baxuagoa da, eta jaitsiera izan du 2003tik: 0,71 2008an.

Ahozko eskaintzaren indizeetan berriz, bietan gertatu da igoera bat bost urteko tartean. Horrez gain, aipatzekoa da bai 2003an eta bai 2008an identifikatzeko eta egokitze indizeak oso parekoak direla (2003an: 0,64 eta 0,67; 2008an berriz: 0,72 eta 0,75). Horrek adierazten digu herriko gizarte arloko erakundeetan euskaraz dakitenek ezezagunei lehen hitza euskaraz egiteko joera oso orokortua zegoela eta dagoela<sup>2</sup>.


Idatzizko komunikazioetan ere indizeak gora egin du bi neurketa hauen artean (0,57tik 0,65era), beraz elkarteek darabiltzaten txartel, izen-emate orri, zabalpen-dokumentu eta gainerakoetan, euskararen presentziak gora egin du.

<sup>2</sup> Kontuan hartu, ahazko indizeen datu gehienak telefonozko deien bidez jasotzen direla, eta beraz erakundeen ordezkariak "ezezagun" bati egiten diote lehen hitza.

Kirol elkarteetako eskaintza komunikazio motaka - Arrasate 2003/2008



Kultura, aisialdi, erlijio eskaintza komunikazio motaka - Arrasate 2003/2008



## Komunikazio motaka


Kirol elkarten indize orokorrak ez du ia aldaketarik izan. Elkarte horiek kasu askotan ez dute egoitza propiorik izaten, baina indizeetan ikusten da, duten guztiek erakundearen izena euskaraz dutela (bai 2003an eta bai 2008an). Ahoz egokitzeko indizean 0,07ko jaitsiera izan da, baina aldiz, dakitenek “lehen hitza” euskaraz egiteko joera erabatekoa da 2008ko datuetan (0,68 eta 0,68).

Kultura, aisialdi eta erlijio elkarten indizea ere maila berean mantendu da bi neurketetan: 0,72. Komunikazio motaka aztertzen badugu, errotulazioetan alde nahiko nabarmena dago bi neurketetan identifikatzailetik informatzailera (0,8 ingurutik 0,5 ingurura).

Idatzizko komunikazioetan, euskarazko eskaintza altuagoa da 2003an baino (0,62 eta 0,73).

Ahozko komunikazioen indizeen dagokionez, berriz, identifikatzeko hizkuntzan indizeak gora egin du. Nabarmentzekoa da, halaber, 2003an ez bezala, 2008an ahoz identifikatzeko eta egokitzeko indizeak maila berean daudela: hau da, oro har, euskaraz dakitenek lehen hitza euskaraz egiten dutela.

Alderdi politiko, sindikatu, ...eskaintza komunikazio motaka - Arrasate 2003/2008



dutelako, edota, erakunde horietan 2003tik 2008ra ordezkari batzuk aldatu egin direlako, berriek euskararen ezagutza altuagoa izanik.

Alderdi politiko, sindikatu eta gizarte mugimenduen azpisektorean euskarazko eskaintza indizeak bilakaera positibo nabarmen bat izan dute egindako bi neurketen artean eta indizea 0,55etik 0,72ra aldatu da.

Igoerarik handienetako bat Idatzizko komunikazioan eman da (erakunde horiek darabiltzaten harremanetarako eta zabalpenerako dokumentuetan): 2003ko 0,4 inguruko indizetik 2008ko 0,6ko mailara.

Ahozko indizeetan ere bietan eman da igoera bat, baina bereziki Ahoz egokitzeko hizkuntzan (0,50etik 0,82ra). Horrek adierazten du erakunde horietako ordezkarien euskarazko ezagutza nabarmen gehitu dela: 2003an euskaraz ez zekiten ordezkarietako batzuk euskara ikasi


## Komunikabideak

### Azpisektoreka


Komunikabideak dira Arrasateko euskarazko eskaintzan nabarmen indizirik baxuena duen sektorea, eta datuetan ikusten dugunez errealitate hori ez da askorik aldatu 2003ko neurketatik 2008kora.

Bertako komunikabideen aldetik herrian dagoen eskaintzaren indizea oso altua da (0,90), baina Kanpoko komunikabideetan –hau da, herritik kanpo sortuak izanik herrian kontsumitzen direnak: prentsa, telebistak, irratiak, internet...- euskarazko eskaintza ez da 0,15eko indizera iristen, eta ondorioz Hedabideen sektoreko indize orokorra 0,29koa da 2008an, **Euskaini** bidez herrian aztertzen diren sei sektoreetan indizirik baxuena.

Gaur egun kanpoko komunikabideek herritarren eguneroko bizitzan duten garrantzia begien bistakoa da. Komunikabide horien hizkuntza eskaintzaren kontrola urrun dago, oso urrun, Udal administrazio baten eragin eremutik. Urrun egote horrek ez du esan nahi, dena den, Arrasateko herritarrek jasotzen duen hizkuntza eskaintzan, presentzia eta eragin zuzenik ez duenik.




Bertako hedabideen euskarazko eskaintza - Arrasate 2003/2008






Hedabideen artean Ikusentzunezkoak eta Idatzizkoak bereizten dira **Euskainin**. Bertako eta kanpoko hedabideetan hizkuntza eskaintzaren aldetik dagoen erabateko aldea bi eratako hedabideetan gertatzen da.

Bertako hedabide edo komunikabideetan, idatzizkoetan herrian dagoen eskaintza erabat euskaraz da (1,00 indizea). Ez da aldaketarik izan horretan lehen neurketatik bigarrenera. Ikusentzunezkoetan ere eskaintza nagusiki euskarazkoa da eta aldaketak txikiak izan dira bost urteotan: 0,83ko indizetik 0,85era. Ikusentzunezkoen artean, telebista, irratia eta internet hartzen dira kontuan. Bertako telebista eta irratietan dagoen eskaintza erabat euskaraz da, baina bertako interneten indizeak (herriko erakundeen webguneak) baxuagoak dira (ikus xehetasunak hurrengo orrian).

Kanpoko hedabideen euskarazko eskaintza - Arrasate 2003/2008



Kanpoko hedabideetan euskarazko eskaintzaren neurria oso-oso mugatua da, 0,15eko indizetik behera. Kasu honetan ere indizeek neurketa batetik bestera izan duten aldaketa oso txikia da: ikusentzunezkoetan 0,02 egin du gora, eta idatzizkoetan 0,01 behera, baina funtsean eskaintza maila berean mantentzen da.



Bertako ikusentzunezko hedabideetan nabarmentzekoa da Bertako internet indizeak bost urte hauetan izandako bilakaera: 2003an 104 erakunderen webguneak aztertu ziren eta indizea 0,33 zen. 2008an ia bikoiztu egin da webgunea duten erakundeen kopurua (206) eta euskarazko eskaintza indizeak gora egin du, 0,33tik 0,41era.

Kanpoko hedabideei dagokionez, eskaintza indizeak berdintsuak izan dira bi neurketetan. Nabarmentzekoa da Kanpoko ikusentzunezkoen artean Kanpoko internet indizeak izandako aldaketa (0,12tik 0,21era). Atal honetan, **Euskaini**k zeharkako iturrien datuak aztertzen ditu (CIES, EUSTAT, ...), eta horien arabera, herritarrak sarean eskura dituen euskarazko edukien eskaintzak gora egin du.




## Hezkuntza

### Azpi-sektoreka

Orokorrean Hezkuntza sektoreko euskarazko eskaintza herriko altuenetakoa da (Administrazioarekin batera), eta beste sektore batzuk bezala, 2003tik 2008ra aztertzen dugun bilakaeran, eskaintza maila bertsua mantendu du, goranzko joera batekin: indize orokorra 0,71tik 0,78ra pasatu da.

Euskarazko eskaintza indizea nabarmen altuagoa da hezkuntza Arautuan (ikastetxeak) Ez Arautuan baino (akademiak, autoeskolak...) eta grafikoan ikus dezakegu bi kasuetan indizeek gora egin dutela bost urteotan.


Bi azpi-sektoreen artean, hezkuntza Ez Arautuan igo dira gehien indizeak: 0,49tik 0,60ra. Herriko hizkuntza errealitate orokorrari begira, gainera, garrantzia kualitatibo aipagarria duen igoera da azken hau. Izan ere, hezkuntza Ez Arautua hizkuntzaren “erabilera sozialetik” hezkuntza Arautua baino hurbilago dago, erakunde publikoen politika edo erabakiekin hain zuzenki lotua ez dagoen neurrian. Alde horretatik, indize horren igoera herri mailako euskararen “erabilera sozialaren”<sup>3</sup> hazkunde joera batekin lotuta egon daiteke, eskaintza mailan behintzat.



<sup>3</sup> “Erabilera soziala” esatean, testuan bertan eginiko bereizketari egin nahi zaio aipamen soilik hemen, terminoaren definizio zehatzetan sartu gabe. Interesgarri ikusi da puntu honetan nolabait bereiztea erabilera “instituzionalagoak” direnak, erakunde publikoek markatutako politikei lotuagoak daudenak, eta “herritarren hizkuntza kontsumo” edo eskaerari lotuago egon daitezkeen beste erabilerak, hemen “sozial” deitu ditugunak.

## Komunikazio motaka

Hezkuntza sektoreko eskaintza komunikazio motaka - Arrasate 2003/2008




Ondoko grafikoan berriz ere Hezkuntzako datu orokorrak ditugu, hezkuntza Arautuaren eta Ez Arautuaren arteko bereizketarik egin gabe, eta kasu honetan Komunikazio motaka berezita.

Sektorean orokorrean eman den indizearen igoera (0,71etik 0,78ra) oso modu orokorrean eman da bost komunikazio motetan: guztiak igo dira 0,05 eta 0,10 artean.


Sektore mailan, aipagarria da Errotulazio identifikatzailearen eta Errotulazio informatzailearen indizeak maila berean egotea (bai 2003an eta bai 2008an). Horrek adieraz dezake Hezkuntza sektorean euskarazko funtzionamendua nahiko zabaldua dagoela herri mailan, izan ere erakundeen errotulu “korporatiboetan” ez ezik (*Errot. Ident*), bestelako ohar eta informazio osagarrietan (*Errot. Info.*) euskarazko eskaintza indizea 0,75-0,80koa da.

Aipatzekoa ere, beste sektore batzuetan bezala, ahozko bi indizeen parekotasuna (bai 2003an eta bai 2008an), euskaraz dakitenek “lehen” hitza euskaraz egiteko joera nabarmenaren berri ematen diguna.

Hezkuntza arautuko eskaintza komunikazio motaka - Arrasate 2003/2008



Hezkuntza ez arautuko eskaintza komunikazio motaka - Arrasate 2003/2008



## Komunikazio motaka


Ondoko bi grafikoetan ikus dezakegu hezkuntza Arautuaren eta Ez Arautuaren kasuan nola banatzen diren indizeak Komunikazio motaka 2003ko eta 2008ko neurketetan.

Orokorrean, hezkuntza Arautuan euskarazko eskaintza indizeak altuagoak dira Ez Arautuan baino, eta bilakaerari dagokionez, euskarazko eskaintzaren igoera nabarmenagoa izan da Ez Arautuan.

Aurreko orrialdean Hezkuntza sektorerako eginiko bi aipamenak (bi errotulazio indizeen eta bi ahozko indizeen arteko parekotasuna) bi azpisektoreetan betetzen direla ikusten dugu grafiko hauetan: hezkuntza Arautuan bi errotulazioen indizeak 0,83 eta 0,84 dira, Ez Arautuan, berriz: 0,68 eta 0,70. Ahozko indizeetan, berriz, Arautuan 0,98 dira bi indizeak eta Ez Arautuan 0,55 eta 0,54.

Esan genezake, beraz, Hezkuntza sektorean herritarrentzat arreta postuetan dauden eta euskaraz dakiten langileek “lehen hitza” euskaraz egiteko (euskaraz “identifikatzeko”) joera erabatekoa dela 2008an, bai hezkuntza Arautuan, eta bai Ez Arautuan. Horrez gain, ahozko indizeetan igoera bat ere eman da, eta beraz, langile horien euskarazko gaitasunean eta/edo hezkuntzako euskarazko eskaintzan igoera bat eman da 2003tik 2008ra.

## Azpisektoreka




Hezkuntza Arautuaren baitan, erakunde –edo ikastetxe- Publikoen eta Pribatuen euskarazko eskaintza indizeak bereizten dira. Alboko grafikoan ditugu azpisektore horien indize orokorrak.

Bi azpisektoreetan indize orokorrek gora egin dute zertxobait 2003tik 2008ra, eta igoera hori nabarmenagoa izan da Hezkuntza Arautu Pribatuaren kasuan.

Oro har dena den, ikusten dugu Hezkuntza Arautuaren baitan ez dagoela alde esanguratsurik hezkuntza Publikoaren eta Pribatuaren euskarazko eskaintza indizeetan. 2003ko neurketan indizea zehazki berdina zuten, eta bost urte geroago hezkuntza Pribatuarena Publikoaren gainetik dago baina alde nabarmenik gabe (0,93 eta 0,88).

## Osasuna

### Azpi-sektoreka



Osasuneko indize orokorra 0,60koa da 2008an, eta bost urte lehenago egindako neurketarekiko igoera izan du (0,52, 2003an).


**Euskainik** herriko errealitatea deskribatzeko egiten den sei sektoreen banaketan, Osasuneko indizeak dira herriko indize orokorretatik gertuen daudenak: 2003an, herriko orokorra 0,54 zen eta Osasunekoa 0,52; eta 2008an berriz, herrikoa 0,58 eta Osasunekoa 0,60.

Osasun Pribatuaren azpi-sektorean indizea oso maila bertsuan mantendu da egindako bi neurketetan. Osasun Publikoan, berriz, indizeak goranzko joera nabarmena izan du.

Aurreko atalean ikusi dugu nola Hezkuntza arloan, nabarmen altuagoak diren euskarazko indizeak hezkuntza Arautuan, Ez Arautuan baino. Ez da hala gertatzen Osasunean. Eredu "publikotik" egiten den eskaintzak ez du "pribatutik" egiten denak baino indize altuagoa. 2003an eginiko neurketan, eskaintza baxuagoa zen osasun Publikoan. Dena den, eskaintza-indize horrek bost urtean nabarmen egin du gora eta 2008an bi azpi-sektoreenak erabat parekatu dira (0,61 eta 0,60).

## Komunikazio motaka

Osasungintza sektoreko eskaintza komunikazio motaka - Arrasate 2003/2008




Ondoko grafikoan Osasun sektoreko indize orokorrak ikus ditzakegu berriz (osasun Publikoa eta Pribatua bereizi gabe), baina komunikazio mota bakoitzean eman den bilakaera zehaztuta.


Sektoreko indize orokorraren igoera ahozko indizeen igoerarekin lotuta dago gehienbat, bereziki Ahoz identifikatzeko indizearen igoerarekin. Igoerak eman dira ere –txikiagoak izan arren- Errotulazio informatzailean, Idatzizko komunikazioen elementuen indizean eta Ahoz egokitzeko hizkuntzan.

Ahozko indizeei dagokienez, nabarmentzekoa da 2008ko indizeetan altuagoa dela Identifikazio indizea (0,65), Egokitze baina (0,60). Oro har, bi indize horien arteko parekotasuna “lehen hitza euskaraz egiteko joera”rekin lotu dezakegu. Identifikaziokoa altuagoa izateak, dena den, adierazten du sektore honetan, langile batzuk, euskaraz egiten dietela lehen hitza herritarrei (identifikazioa), nahiz eta ondoren ez duten gaitasunik haiekin elkarrizketa bat euskaraz jarraitzeko.

Osasungintza publikoko eskaintza komunikazio motaka - Arrasate 2003/2008



Osasungintza pribatuko eskaintza komunikazio motaka - Arrasate 2003/2008



## Komunikazio motaka

Ondoko grafikoetan ikus dezakegu Osasun Publikoan eta Pribatuan indizeak izan duten bilakaera, komunikazio motaka berezita.


Osasun Publikoan erakunde gutxiren datuak jasotzen dira (ospitala eta anbulatorioa), baina herritar askori bere zerbitzua ematen dietenak. Erakunde horien eskaintzan egindako aldaketek gora-behera oso nabarmenak eragiten dituzte azpisektoreko indizeetan (Ahoz identifikatzeko hizkuntza 0,30tik 0,65era, edo Errotulazio identifikatzailea 1,00etik 0,75era). Aldiz, osasun Pribatuan erakunde askoren datuak jasotzen dira eta ez da halako aldaketa nabarmenik.

Azpisektore honetan Ahoz identifikatzeko hizkuntzak bi gauza adierazten ditu (Osasun sektorean): erakundeko arreta-hizkuntza, eta bertako langileen euskarazko ezagutza: osasun Publikoan bietan eman da igoera 2003tik 2008ra, eta horrek indizeen igoera nabarmena ekarri du.

Osasun Pribatuan igoera apal bat eman da errotulazioen eskaintzan eta Komunikazio idatzietan. Ahozkoetan, aldiz, indizeak maila bertsuan mantendu dira.

## Ezagutza – erabilera - eskaintza

### Eskaintza beste ezaugarrien alboan



Atal honetan **Euskainik** indize batean laburtzen digun herriko *euskarazko eskaintza*, egoera soziolinguistikoa neurtzeko erabili ohi diren bi aldagairen baitan baloratzen dugu: herritarren *ezagutza* eta herritarren kaleko *erabilera*.


*Ezagutzari* dagokionez, 2006an EUSTATEk emandako herriko euskaldunen proportzioa hartu dugu erreferentzia gisa: %55. *Erabilera* mailan berriz, behaketa bidez Udalak neurtutako kaleko erabilera: %32 (2006-10 batez bestekoa).

**Euskaini** indizea ez da ehuneko bat, 0 eta 1 arteko indize bat baizik. Erreferentzia modura, 0-100 (%) eta 0-1 eskalak parekatzen ditugu hemen, eta ikusten dugu 2008ko euskarazko eskaintza, 2006ko *ezagutzaren* maila bertsuan kokatzen dela, pixka bat gainetik (+3), eta *erabilera* maila baino nabarmen altuago (+26) (2006-10 batez besteko erabilera).

Hurrengo orrialdeko datuekin oinarritzko alderaketa hau osa dezakegu, Arrasateko 2003 eta 2008ko neurketen datuak aztertuz, eta beste herri batzuetakoak ere kontuan hartuz.



## ARRASATE beste herrien alboan



	ARRASATE				HERNANI				ELGOIBAR		AZPEITIA		PASAIA		OIARTZUN	
	Lehenengoa		Bigarrena		Lehenengoa		Bigarrena									
<b>EZAGUTZA</b>	2001	%56	2006	%55	2001	%55	2006	%56	2006	%60	2006	%95	2006	%38	2006	%73
<b>ERABILERA</b>	2001/05	%31	2006/2010	%32	2001	%27	2005	%31	2008	%40	2009	%86	2006	%17	2005	%59
<b>ESKAITZA</b>	2003	0,54	2008	0,58	2003	0,51	2009	0,53	2008	0,56	2009	0,7	2005	0,39	2005	0,62
<b>Biztanleria</b>	2001	23118	2008	21974	2001	18 287	2008	19229	2008	11 051	2008	14157	2006	15 943	2006	9728

Aurreko orriko datuen alderaketan, oso kontuan hartzekoa da alderatzen ditugun datu guztiak **ez direla urte berekoak**, baizik eta kasu bakoitzean, egindako **Euskaini** neurketatik hurbilen daudenak.

Arrasateko datuetatik hasita, ikusten dugu **Euskaini** lehenengo neurketatik (2003) bigarrenera (2008) datuak nahiko egonkor mantendu direla *ezagutza* eta *erabilera* mailan, eta euskarazko *eskaintza* mailan gertatu dela aldaketarik handiena: 0,54tik 0,58ra. Puntu gutxiko aldeak izanda ere, bigarren neurketan *eskaintza ezagutzaren* “gainetik” egotera igaro da (0,58 vs %55) eta beste herrietako datuen testuinguruan aldaketa azpimarragarria da hori.

Azpeitiak, Pasaiak eta Oiartzunek ezberdintasun garrantzitsuak dituzte Arrasaterekin herri gisa. Hernani eta Elgoibar, aldiz, oso erreferentzia baliagarriak zaizkigu Arrasaterekin dituzten antzekotasunengatik, bai soziolinguistikoki eta bai beste maila batzuetan ere.

Bi herri horietan eta Arrasaten deskriba genezake joera orokor bat, non euskarazko *eskaintza*, *ezagutzaren* maila bertsuan kokatzen den, zertxobait azpitik (-2, -3, -4), eta *erabilera* nabarmen baxuagoa den (-20, -30). Arrasateko 2008ko **Euskaini** indizea joera horretatik atera egiten da nolabait, herriko *ezagutza* mailaren “gainetik” dagoen *eskaintza* indize batekin.

Alderaketa hauek egitean kontuan hartu behar dugu puntu gutxiko aldaketez ari garela, eta **Euskaini** neurketetan alderaketak egiteko oraindik oso datu-serie mugatuak ditugula. Datu-serieen muga horretatik izanik ere, esan genezake:

- Arrasaten 2003an egindako neurketatik 2008an egindakora *eskaintza* indizeak goranzko joera duela (0,54tik 0,58ra), urte horietan ditugun *ezagutza* eta *erabilera* datuetan ia aldaketarik eman ez den arren.
- 2008ko Arrasateko **Euskaini** indizeak, *ezagutza* eta *erabilera* datuak kontuan izanik, proportzioan Hernanin eta Elgoibarren baino euskarazko *eskaintza* altuxeagoa adierazten dutela.

Oiartzun eta Azpeitiko datuei erreparatuta ikusten dugu, euskarazko *ezagutza* eta *erabilera* datuak Arrasaten baino nabarmen altuagoak izan arren, **Euskaini** indizean aldeak askoz txikiagoak direla.

Kontuan hartu behar dugu *eskaintza* neurtzean testuinguru soziolinguistikoko orokorrarekin oso estu lotutako datuak ere jasotzen ditugula herrian: komunikabideen *eskaintza*, ekonomia arloa... Ondorioz *eskaintza* indizeak badu nolabaiteko muga “egiturazko” bat, aipatu testuinguruari lotua. Azpeitiko 2009ko 0,70 da egindako **Euskaini** neurketa guztietan orain arte neurtutako indizerik altuena eta aipatu “muga” horren berri ematen digu, nolabait.

## Neurketaren ondorio nagusiak

### 2008ko datuak:

- Arrasateko 2008ko **Euskaini** indize orokorra 0,58 da (0-1 eskalan).
- Herritarrek euskarazko eskaintzarik altuena Administrazio sektorean eta Hezkuntzan jasotzen dute, sektore horien indizeak 0,79 eta 0,78 izanik.
- Indizerik baxuena Komunikabideen sektorearena da, alde handiz: 0,29. Ekonomia arloko indizea 0,48 da.
- Bi mutur horien artean kokatzen dira Osasun sektorea eta Gizartea. Osasun arloko indizea 0,60 da, eta Gizarte arloko elkarte eta erakundeena 0,71.
- Komunikazio motaka berezita, herriko erakundeen errotulu nagusien euskarazko eskaintza indizea 0,70 da (*Errot. Identifikatzailea*), eta errotulu osagarriena (*Errot. Informatzailea*), baxuagoa, baina alde txikiarekin: 0,64.
- Ahozko komunikazioetan, herritarrek erakunde batean jasotzen duten identifikazio-hizkuntza edo lehen hitzaren indizea 0,61 da (*Ahoz Identifikatzeko hizk.*). Aldiz, herritarrak euskaraz eginez gero, elkarrizketa euskaraz jarraitzeko aukera adierazten duen indizea altuxeagoa da: 0,70 (*Ahoz Egokitzekeo hizk.*).

- *Idatzizko komunikazioetan* jasotzen dute arrasatearrek euskarazko eskaintzarik baxuena: indizea 0,46 da arlo horretan.

2008ko indize horiek adierazten diguten herriko hizkuntza-errealitateari buruz, beraz, nabarmendu genezake:

- Herritar bat erakunde, komertzio edo elkarte batera doanean, euskaraz egiten badu, oinarriko elkarrizketa bat –kontsulta mailakoa- 10 kasutik 7tan euskaraz jarrai dezakeela, eta beste 3etan ezin duela.
- Herriko erakunde, komertzio eta elkarteetako ordezkari euskaldunek gehienetan herritarrari lehen hitza –telefonoz- euskaraz egiten diotela: 10 kasutik 8,5etan.
- Euskarak erakundeen ageriko errotulu eta izenetan, beraz maila identifikatibo zein sinboliko batean, presentzia handia duela, eta errotulu osagarri edo praktikoagoetan presentzia hori zertxobait baxuagoa dela, baina maila bertsuan egonik (0,70 eta 0,64 indizeak).
- Aldiz, herritarrak han eta hemen eskura dituen informazio eta dokumentu idatzietan euskarazko eskaintza txikiagoa jasotzen duela gorago aipaturiko komunikazioetan baino, *elebietan* mailaren zertxobait azpitik (0,46)<sup>4</sup>.

<sup>4</sup> Suposa dezagun herriko erakunde, denda eta elkarte guztien dokumentu guztiak elebietan daudela [euskara eta gaztelania maila berdinean]. Kasu horretan herriko indizea *Idatzizko komunikazioan* 0,5 litzateke zehazki.

Herriko **Euskaini** indize orokorra (**0,58** 2008an) erreferentzia mailan alderatu egin dugu herriko euskaldunen proportzioarekin (%55; EUSTAT, 2006) eta kaleko euskarazko erabilerarekin (%32; Arrasateko Udala, 2006-2010 batez bestekoa). Bi eskalak parean jarriz gero ikusten dugu euskarazko Arrasateko 2008ko *eskaintza*, *ezagutzaren* maila bertsuan kokatzen dela, pixka bat gaitetik (+3), eta *erabilera* maila baino nabarmen altuago (+26).

## Bilakaera 2003tik 2008ra:

2003an egin zen Arrasaten **Euskaini** lehen neurketa. 2008ko bigarren neurketaren helburu nagusietako bat indizeen bilakaera aztertzea izan da, eta horregatik txosten honen atal guztietan bi neurketen indizeak alderatzen dira.

Herriko **indize orokorra 0,54 zen 2003an eta 0,58 2008an**: euskarazko *eskaintza* 2003ko maila bertsuan mantendu da, goranzko joerarekin. Igoera hori ez da modu desorekatuan eman, **Euskainik** aztertzen dituen 6 sektoreetatik 5etan eman baitira igoerak.

- **Administrazioan**: indize orokorra maila berdin-berdinean mantendu da 2003tik 2008ra (0,79 eta 0,79). Azpisektoreka, alde nabarmenak daude: Udal eta Foru administrazioan indizeek gora egin dute pixka bat, 0,9 ingurura iritsiz.

Estatukoan indizea berdintsu mantendu da (0,25 inguruan) eta Justiziakoak jaitsiera oso nabarmena izan du (0,72tik 0,12ra).

- **Ekonomian**: indize orokorrak apur bat gora egin du: 0,44tik 0,48ra. Azpisektoreka, euskarazko eskaintzaren igoera nabarmenagoa izan da Enpresetan Merkataritzan baino, eta igoera batik bat bi puntutan eman da: enpresen errotulu nagusietan, eta bezeroari egiten zaion "lehen hitza"n. Merkataritzaren baitan, bestalde, Zerbitzuen indizea igo da gehien (Komertzioena eta Gainazalena oso gutxi).
- **Gizartean**: indize orokorra 0,66tik 0,71ra igo da. Kasu honetan, igoera ez da azpisektoreka modu orekatuan eman. Gizarte arloko bi azpisektorerik zabalenetan (Kultura eta Kirola) indizeak maila berean mantendu dira bost urte horietan. Aldiz, arlo politiko-sindikalean indizea nabarmen igo da (0,55etik 0,72ra).
- **Komunikabideetan**: oso aldaketa txikiak eman dira oro har. 2003an bezala, 2008an herrian eginiko komunikabideen aldetik eskaintza ia erabat euskaraz da (0,90ko indizea), baina kanpoko eskaintza ez da 0,15era iristen eta ondorioz indize orokorrak maila berean mantendu dira (0,27 eta 0,29). Aipagarria da herriko webguneetan izandako aldaketa

(Bertako komunikabideetan): webgune gehiago daude 2008an, eta beren indizea 0,33tik 0,41ra aldatu da.

- Hezkuntzan: indize orokorrean igoera izan da, 0,71tik 0,78ra. Bi azpisektore ditu Hezkuntzak eta bietan eman da igoera. Hezkuntza Arautuan 0,85etik 0,90era, eta Ez arautuan, berriz, 0,49tik 0,60ra. Azken igoera horrek, handiagoa izateaz gain, garrantzia kualitatibo aipagarria du.
- Osasunean: indize orokorra 0,52 zen 2003an eta 0,60 2008an. Azpisektoreka begiratuta, igoera hori modu desorekatuan eman da: osasun Pribatuan euskarazko eskaintza maila bertsuan mantendu da (0,58 / 0,60), Publikoan aldiz, indizeak nabarmen egin du gora: 0,45etik 0,61era.

Euskarazko *eskaintzari* buruzko 2003ko eta 2008ko indizeak herriko *ezagutza* eta *erabilerari* buruzko datuekin ere alderatu ditugu, eta Arrasateko datuei beste herri batzuetan neurtutakoak ere gehitu dizkiegu (besteak beste, Elgoibarkoak eta Hernanikoak). Era honetako alderaketak egiteko oraingoan hiru parametro hauetan ditugun datu-serieak oso mugatuak diren arren, hauek dira oraingoan nabarmendu ditzakegun ideia nagusiak:

- Arrasaten 2003an egindako neurketatik 2008an egindakora *eskaintza* indizeak goranzko joera izan du (0,54tik 0,58ra),

nahiz eta urte horietan ditugun *ezagutza* eta *erabilera* datuetan ia ez den aldaketarik eman.

- 2008ko Arrasateko **Euskaini** indizeak, *ezagutza* eta *erabilera* datuak kontuan izanik, proportzioan Hernanin eta Elgoibarren baino euskarazko *eskaintza* altuxeagoa adierazten du, eta ditugun datuen “joera”tik pixka bat atera egiten da, herriko *ezagutza* mailaren “gaintik” dagoen *eskaintza* indize bat den neurrian.

## Euskaini neurketaren METODOLOGIA

### Hizkuntza eskaintzaren neurketa

**Euskaini** hizkuntza eskaintza publikoaren erradiografia indize batean laburtzen duen adierazle sistema da. Gizartearen sektore ezberdinetan (administrazioan, ekonomian, komunikabideetan, etab.) jasotzen dugun hizkuntza eskaintza du aztergai; hau da, herritar batek jasotzen duen hizkuntza errealitatearen zein proportzio dagoen hizkuntza horretan (errotuluak, idazkiak, ahozko komunikazioa...). Beste modu batera esanda: Euskal Herriko udalerrietan **EUS**kara zenbat es**KAINI** ohi zaigun neurtzeko adierazle sistema da.

Herritarrari egiten zaion hizkuntza eskaintzak mugatzen du herritarraren hizkuntza aukera egoera askotan. Eskaintzarik ezean, hala nahi duenak gizarte mailan euskara erabiltzeko mugak ditu.

Alde batetik, harreman bat euskaraz sor eta gara dadin, beharrezkoa da bi aldeek hizkuntza menperatzea. Baina bestetik, zerbitzu, elkarte,

denda... berri batera sartzen garenean funtsezkoa da kontuan hartzea bertan zein hizkuntzatan zuzentzen zaizkigun ahoz edota zein hizkuntzatan dauden bertako errotulu eta idazkiak. Izan ere, harremanaren abiapuntuko hizkuntzak harremana hizkuntza horretan garatzera eramango du, sarri.

Erabilerarekin gertatzen den moduan, eskaintza aldetik ere, gizarte mailan jasotzen ditugun zerbitzu, iragarki, eta gainerakoetatik zati bat baino ez da egoten euskaraz. Herriaren arabera, zati hori handiagoa ala txikiagoa izaten da. Hizkuntza gutxiagotuaren "presentzia" mugatua da gizarte mailan eta ondorioz euskara erabili nahi duenak trabak ditu erabilera hori gizarteko arlo ezberdinetara hedatzeko.

Hizkuntza eskaintza murriztuaren testuinguru honetan, **Euskainik** udalerrri batean hizkuntza eskaintza neurtzen du, eta indize zehatz batean adierazi. Ez du erabilera neurtzen, ez eta biztanleriaren gaitasun maila ere. Eskaintzak, ordea, gorago esan dugunez, nabarmen baldintzatzen du erabilera.

Beraz, eskaintza neurtzea eta kontuan hartzeak bi helburu nagusiri erantzuten diela esan daiteke: alde batetik, euskararen egoeraren

neurri bat eskuratzea eta bestetik hizkuntza plangintzari begira indargune eta ahuluneak identifikatzen laguntzea.

## Datuen antolaketa

**Euskaini** adierazleak, euskarazko eskaintzari buruz jasotako informazioa sektoreka eta komunikazio motaka sailkatuta eskaintzen digu, 0tik 1erako indizeen arabera. 1 indizeak erabateko euskarazko eskaintza adierazten du, eta 0k berriz, erabat gaztelaniazkoa (euskarazko eskaintzarik eza).

Sektoreei dagokionez, herriko errealitatea 6 sektoretan sailkatzen du **Euskainik**, eta sektore bakoitzak bere azpisektoreak ditu.

Sektore eta azpisektore horietako bakoitzean herriko erakunde guztietan egiten dira datu-jasoketak (enpresa eta komertzioen kasuan, lagin adierazgarri bat hautatzen da), elementu jakin batzuk behatuz (ahozkoak zein idatzizkoak). Behaturiko erakunde bakoitzaren informazioa, 5 komunikazio-motatan banatzen da

## Komunikazio motak

Neurketaren egitura azaltzerakoan esan bezala, **Euskaini** indizeak erakundeei buruzko hainbat datu behatu eta modu jakin batean konbinatuta kalkulatzen dira. Behaturiko erakunde bakoitzaren informazioa, 5 komunikazio-motatan banatzen da. Komunikazio-mota hauen arabera eskaintzen dira sektore eta azpisektore bakoitzaren indizeak, eta bost komunikazio mota hauetatik kalkulatzen da kasuan kasuko indize orokorra (herrikoa, sektore bakoitzarena, azpisektore bakoitzarena, erakunde bakoitzarena...).

Jarraian dituzue komunikazio-mota hauen laburdurak (grafikoetan ageri direnak) eta bakoitzak adierazten duena. Indize orokorren kasuan bezala, komunikazio-mota bakoitzean ere, 0ak erabat gaztelaniazko eskaintza adierazten du herritarrarekiko eta 1ak erabat euskarazkoa.

- Errotulazio identifikatzailea ("ERR. IDENT"): erakundea herritarren aurrean identifikatzen duen errotulazioa da.
- Errotulazio informatzailea ("ERR. INFO."): azalpenak edo informazioa emateko eraikinean jarrita dagoen errotulazio osagarria edota oharrak dira.



- Idatzizko komunikazioak (“IDATZ. KOM.”): paperean edo euskarri elektronikoan sortzen dituzten idatzizko dokumentuak dira. Hiru ataletan banatzen da: komunikazio idatziak, zabalpen edo publizitaterako elementuak eta web orriak.
- Ahoz identifikatzeko hizkuntza (“AHOZ IDENT. HIZ.”): erakundeak herritarrekin komunikatzeko lehenik erabiltzen duen hizkuntza da, erakunde horren aldetik jasotzen dugun “lehen hitza”, nolabait (kasurik gehienetan, telefonozko dei bidezko lehen hitza).
- Ahoz egokitze hizkuntza (“AHOZ EGOK. HIZ.”): erakundearen dagoen pertsonalak herritarren euskarazko elkarrizketara egokitzen den (euskaraz jarraitzen digun) edo ez. Erakundearen aldetik “lehen hitza” euskaraz edo gaztelaniaz jaso, euskarazko elkarrizketa bat hasten dugu eta beren erantzuna neurtzen dugu.



## Erreferentzia interesgarriak

Altuna, O. Suberbiola, P. (2003). "Euskaini: euskarazko eskaintzaren adierazlea" Bat: Soziolinguistika aldizkaria, 46 (79-93)

<http://www.soziolinguistika.org/eu/node/976>

Fabà, A., López, P. Ubach, N. (2000). "OFERCAT. Katalanezko eskaintzaren adierazleak" Bat: Soziolinguistika aldizkaria, 34 (79-116)

<http://www.soziolinguistika.org/eu/node/828>

Fabà, A., López, P., Romagosa, M. (2003). "Ofercat: Indicators de l'oferta de català. Un instrument al servei de la planificació lingüística". Noves SL.: Revista de sociolingüística, 2.

<http://www6.gencat.cat/llengcat/noves/hm03estiu/roma.pdf>

Fabà, A., Llaberia, M. (2008) "Ofercat 2001-2006: Oferta lingüística en quinze ciutats de Catalunya". Llengua i ús: Revista tècnica de política lingüística, 41.

[http://www6.gencat.cat/llengcat/liu/41\\_13.pdf](http://www6.gencat.cat/llengcat/liu/41_13.pdf)

## Eranskinak

### 2003KO eta 2008ko INDIZE GUZTIEN TAULAK (I)

	2003	2008	2003-2008 aldea
ARRASATE	0,54	0,58	0,04
<b>Sektoreka</b>			
Administrazioa	0,79	0,79	0,00
Ekonomia	0,44	0,48	0,04
Gizartea	0,66	0,71	0,05
Komunikabideak	0,27	0,29	0,02
Hezkuntza	0,71	0,78	0,07
Osasungintza	0,52	0,60	0,08
<b>Komunikazio motaka</b>			
ERR. IDENT.	0,61	0,70	0,09
ERR. INFO.	0,64	0,64	0,00
IDATZ. KOM.	0,46	0,46	0,00
AHOZ IDENT. HIZ.	0,55	0,61	0,06
AHOZ EGOK. HIZ.	0,67	0,70	0,03

<b>Administrazioa</b>			
	2003	2008	2003-2008 aldea
Administrazioa	0,79	0,79	0,00
ERR. IDENT.	0,78	0,88	0,10
ERR. INFO.	0,70	0,73	0,03
IDATZ. KOM.	0,62	0,62	0,00
AHOZ IDENT. HIZ.	0,84	0,80	-0,04
AHOZ EGOK. HIZ.	0,85	0,83	-0,02
<b>Administrazioa - Azpisektoreak</b>			
Udala / mankom.	0,86	0,90	0,04
ERR. IDENT.	0,86	0,96	0,10
ERR. INFO.	0,82	0,78	-0,04
IDATZ. KOM.	0,70	0,73	0,03
AHOZ IDENT. HIZ.	0,91	0,94	0,03
AHOZ EGOK. HIZ.	0,91	0,94	0,03
Foru / autonom	0,79	0,87	0,08
ERR. IDENT.	0,88	0,88	0,00
ERR. INFO.	0,50	0,62	0,12
IDATZ. KOM.	0,52	0,48	-0,04
AHOZ IDENT. HIZ.	1,00	1,00	0,00
AHOZ EGOK. HIZ.	0,75	1,00	0,25
Estatukoa	0,22	0,25	0,03
ERR. IDENT.	0,12	0,38	0,26
ERR. INFO.	0,38	0,42	0,04
IDATZ. KOM.	0,24	0,25	0,01
AHOZ IDENT. HIZ.	0,00	0,00	0,00
AHOZ EGOK. HIZ.	0,50	0,50	0,00
Justizia adm	0,72	0,12	-0,60
ERR. IDENT.	0,50	0,50	0,00
ERR. INFO.	0,00	0,50	0,50
IDATZ. KOM.	0,25	0,00	-0,25
AHOZ IDENT. HIZ.	1,00	0,00	-1,00
AHOZ EGOK. HIZ.	1,00	0,00	-1,00

## 2003KO eta 2008ko INDIZE GUZTIEN TAULAK (II)

Ekonomia			
	2003	2008	2003-2008 aldea
Ekonomia	0,44	0,48	0,04
ERR. IDENT.	0,37	0,53	0,16
ERR. INFO.	0,51	0,49	-0,02
IDATZ. KOM.	0,37	0,31	-0,06
AHOZ IDENT. HIZ.	0,42	0,53	0,11
AHOZ EGOK. HIZ.	0,57	0,57	0,00
Ekonomia - Azpisektoreak			
Publizitatea	0,26	0,24	-0,02
Enpresak	0,42	0,50	0,08
ERR. IDENT.	0,25	0,40	0,15
ERR. INFO.	0,47	0,49	0,02
IDATZ. KOM.	0,20	0,30	0,10
AHOZ IDENT. HIZ.	0,41	0,53	0,12
AHOZ EGOK. HIZ.	0,59	0,63	0,04
Merkataritza	0,47	0,50	0,03
ERR. IDENT.	0,41	0,57	0,16
ERR. INFO.	0,52	0,49	-0,03
IDATZ. KOM.	0,43	0,31	-0,12
AHOZ IDENT. HIZ.	0,42	0,52	0,10
AHOZ EGOK. HIZ.	0,56	0,55	-0,01
Ekonomia - Merkataritza - Azpisektoreak			
Gainazalak	0,45	0,46	0,01
ERR. IDENT.	0,30	0,50	0,20
ERR. INFO.	0,57	0,46	-0,11
IDATZ. KOM.	0,29	0,16	-0,13
AHOZ IDENT. HIZ.	0,47	0,53	0,06
AHOZ EGOK. HIZ.	0,47	0,53	0,06
Komertzioak	0,51	0,54	0,03
ERR. IDENT.	0,51	0,65	0,14
ERR. INFO.	0,53	0,53	0,00
IDATZ. KOM.	0,60	0,45	-0,15
AHOZ IDENT. HIZ.	0,40	0,51	0,11
AHOZ EGOK. HIZ.	0,64	0,56	-0,08
Zerbitzuak	0,41	0,51	0,10
ERR. IDENT.	0,40	0,54	0,14
ERR. INFO.	0,38	0,48	0,10
IDATZ. KOM.	0,39	0,36	-0,03
AHOZ IDENT. HIZ.	0,33	0,53	0,20
AHOZ EGOK. HIZ.	0,59	0,58	-0,01

Gizartea			
	2003	2008	2003-2008 aldea
Gizartea	0,66	0,71	0,05
ERR. IDENT.	0,86	0,88	0,02
ERR. INFO.	0,78	0,71	-0,07
IDATZ. KOM.	0,57	0,65	0,08
AHOZ IDENT. HIZ.	0,64	0,72	0,08
AHOZ EGOK. HIZ.	0,67	0,75	0,08
Gizartea - Azpisektoreak			
Kirola	0,7	0,69	-0,01
ERR. IDENT.	1,00	1,00	0,00
ERR. INFO.	1,00	0,75	-0,25
IDATZ. KOM.	0,67	0,61	-0,06
AHOZ IDENT. HIZ.	0,67	0,68	0,01
AHOZ EGOK. HIZ.	0,75	0,68	-0,07
Kultura, aisia, erlijio,...	0,72	0,72	0,00
ERR. IDENT.	0,81	0,77	-0,04
ERR. INFO.	0,49	0,53	0,04
IDATZ. KOM.	0,62	0,73	0,11
AHOZ IDENT. HIZ.	0,63	0,77	0,14
AHOZ EGOK. HIZ.	0,74	0,75	0,01
Alderdi, sindikatu,...	0,55	0,72	0,17
ERR. IDENT.	0,74	0,83	0,09
ERR. INFO.	0,78	0,84	0,06
IDATZ. KOM.	0,39	0,62	0,23
AHOZ IDENT. H.	0,62	0,73	0,11
AHOZ EGOK. H.	0,50	0,82	0,32

## 2003KO eta 2008ko INDIZE GUZTIEN TAULAK (III)

Komunikabideak			
	2003	2008	2003-2008 aldea
Komunikabideak	0,27	0,29	0,02
<b>Komunikabideak - Azpisektoreak</b>			
Bertakoak	0,88	0,90	0,02
Ikusentzunezkoak (B)	0,83	0,85	0,02
<b>Komunikabideak - Bertakoak (B)</b>			
Irratiak (B)	1	1,00	0,00
Telebista (B)	1	1,00	0,00
Internet (B)	0,33	0,41	0,08
Idatzizkoak (B)	1	1,00	0,00
Aldizkariak (B)	1	1,00	0,00
Egunkariak (B)	1	1,00	0,00
<b>Komunikabideak - Kanpokoak (K)</b>			
Kanpokoak	0,12	0,13	0,01
Ikusentzunezkoak (K)	0,13	0,15	0,02
Irratiak (K)	0,19	0,21	0,02
Telebista (K)	0,1	0,10	0,00
Internet (K)	0,12	0,21	0,09
Idatzizkoak (K)	0,1	0,09	-0,01
Aldizkariak (K)	0	0,01	0,01
Egunkariak (K)	0,17	0,14	-0,03

Hezkuntza			
	2003	2008	2003-2008 aldea
Hezkuntza	0,71	0,78	0,07
ERR. IDENT.	0,71	0,77	0,06
ERR. INFO.	0,74	0,79	0,05
IDATZ. KOM.	0,59	0,67	0,08
AHOZ IDENT. HIZ.	0,73	0,81	0,08
AHOZ EGOK. HIZ.	0,72	0,80	0,08
<b>Hezkuntza - Azpisektoreak</b>			
Arautua	0,85	0,90	0,05
ERR. IDENT.	0,80	0,83	0,03
ERR. INFO.	0,93	0,84	-0,09
IDATZ. KOM.	0,64	0,68	0,04
AHOZ IDENT. HIZ.	0,91	0,98	0,07
AHOZ EGOK. HIZ.	0,86	0,98	0,12
Arautu Publikoa	0,85	0,88	0,03
ERR. IDENT.	0,69	0,77	0,08
ERR. INFO.	0,90	0,78	-0,12
IDATZ. KOM.	0,69	0,72	0,03
AHOZ IDENT. HIZ.	0,91	0,96	0,05
AHOZ EGOK. HIZ.	0,91	0,96	0,05
Arautu Pribatua	0,85	0,93	0,08
ERR. IDENT.	0,97	0,94	-0,03
ERR. INFO.	0,98	0,93	-0,05
IDATZ. KOM.	0,57	0,62	0,05
AHOZ IDENT. HIZ.	0,91	1,00	0,09
AHOZ EGOK. HIZ.	0,79	1,00	0,21
Ez arautua	0,49	0,60	0,11
ERR. IDENT.	0,56	0,68	0,12
ERR. INFO.	0,46	0,70	0,24
IDATZ. KOM.	0,53	0,66	0,13
AHOZ IDENT. HIZ.	0,46	0,55	0,09
AHOZ EGOK. HIZ.	0,49	0,54	0,05

Osasungintza			
	2003	2008	2003-2008 aldea
Osasungintza	0,52	0,60	0,08
ERR. IDENT.	0,72	0,62	-0,10
ERR. INFO.	0,50	0,56	0,06
IDATZ. KOM.	0,38	0,46	0,08
AHOZ IDENT. HIZ.	0,46	0,65	0,19
AHOZ EGOK. HIZ.	0,52	0,60	0,08
<b>Osasungintza - Azpisektoreak</b>			
Osasungintza Publikoa	0,45	0,61	0,16
ERR. IDENT.	1,00	0,75	-0,25
ERR. INFO.	0,67	0,69	0,02
IDATZ. KOM.	0,40	0,48	0,08
AHOZ IDENT. HIZ.	0,30	0,65	0,35
AHOZ EGOK. HIZ.	0,30	0,50	0,20
Osasungintza Pribatua	0,58	0,60	0,02
ERR. IDENT.	0,43	0,48	0,05
ERR. INFO.	0,34	0,44	0,10
IDATZ. KOM.	0,37	0,44	0,07
AHOZ IDENT. HIZ.	0,62	0,65	0,03
AHOZ EGOK. HIZ.	0,74	0,71	-0,03